



MERKATARITZA MAHAIA

2024ko apirilaren 8a

GAI-ZERRENDA:

- ✓ Ongi etorria.
- ✓ Sektorearen egungo egoeraren azterketa
- ✓ Oraingo proiektuak:
 - Getxo Bono 2024: kanpainari buruzko datuak
 - Elikadura jasangarriaren aldeko merkataritza-sarea
 - “Txakur-pixa” kanpaina
 - Saldoen merkatua
 - GetxoAktibaTU!
 - 2024ko dinamizaziorako laguntzak
 - 2024ko kontrataziorako laguntzak
 - Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia
 - GetxoLive
 - Beste batzuk: Online prestakuntzak, Batuz, enpresentzako aholkularitza-zerbitzua, GetxoHurbil Sariak
- ✓ Ideia eta proposamen berriak

BERTARATUAK: (% 90)

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	ETORRI EZ IZANA	
			Arrazoi emanda	Arrazoirik eman gabe
Algorta-Andra Mariko ordezkaria	Virginia García (VITO 52)	X		
Portu Zaharreko, Kirol Portuko eta Neguriko ordezkaria	Kimetz Garate (ZURIKALDAI NEGURI)	X		
Erag. Romo	Leire Martin (Expert Cordevi)	X		
Erag. Areeta	Itxaso Zelaia (JUAN MARI HARATEGIA)	x		



Erag. Areeta	Sara Mata (COLORES)			X
Erag. Algortako Dendak	Oriente Enríquez	X		
Erag. Getxo Enpresa	Jose Manuel Garay	X		
Romo Bizirik elkarteko ordezkaria	Mikel Achaerandio	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Juan Jesús Blanco	X		
	M.Z.	X		
	Rubén Justicia	X		

EDUKIAK

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Mirene Zabalgogezcoak (aurrerantzean M.Z.), Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, bilerara bertaratutakoei ongietorria eman die. Jarraian, talde-etzabaida txiki bati ekin zaio orain arteko denboraldia nolakoa izan den eta sektorearen aurreikuspenak zeintzuk diren azaltzeko. Ildo horretatik, bileran batutakoek honako hau adierazi dute:

2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa

Bertaratutakoak bat datoz urte hasierak “motelak” direla adieraztean. Are gehiago, martxoa otsaila baino okerragoa izan ohi da. Horrez gain, klima eta Athletic nabarmendu beharreko faktoreak dira, batzuei eragin positiboak sortu baitzkie baina beste batzuei, ostera, negatiboak.

Diotenez jende gutxiago ikusten da auzotik eta Oriente Enriquezek adierazi du arduratuta dagoela bere lokaletatik gertu bi taberna zabaldu izanagatik; izan ere, gatazkatsuak izan daitezke eta bere negozioan eragina izan dezakete. M.Z.-k proposatu die ikusi dituzten eta gunean eragiten duten auzoko arazo guztiak udalari jakinarazteko, neurriak hartu ditzaten, hala nola garbiketari, segurtasunari eta ordenari dagokienez.

3. Informazioa hurrengo gaietarako:

a) Getxo Bono 2024

M.Z.-k kanpainara atxikitako establezimendu-kopurua adierazi du (234) eta jakinarazi du aurten murriztu dela programan parte hartzen duten saltokien kopurua; izan ere, akademiak, gimnasioak eta apaindegiak kendu dira 2024ko Getxo Bonotik eta kanpaina hasteko ordu jakin bat ezarri da. Halaber, zehaztu du ez dagoela saltoki guztiei ondo datorkien formula bat eta, hala, ordezkarietarako



eskatu die hausnartu dezaten GetxoBono ereduaren eta horren helburuen bideragarritasunari buruz.

Oro har, ordezkariak jakinarazi dute uste dutela bezeroak ohituta daudela jada etenik gabe deskontuen kanpainak izatera. Itxaso Zelaiak, bestalde, uste du ereduak huts egin duela eta haragiaren bonoa aipatu du adibide gisa, ez baitu espero zen arrakasta lortu: “jendeak deskontuarekin erosten du”. M.Z.-k ondorioztatu du GetxoBonoren helburua baldin bada udalerriko kontsumoa denbora-tarte jakin batean sustatu, ikusarazi eta fidelizatzea, herritarren artean eraginkorragoa izateko beste modu batzuk aurkitu beharko lirатеkeela. Halaber, gogorarazi die bigarren deialdia egingo dela urrian, martxoko ezaugarri berak izango dituen, baldin eta ez bada eredu berria zehazten.

[Kanpainari buruzko informazio gehiago](#)

b) Elikadura jasangarriaren aldeko merkataritza-sarea

M.Z.-k gogorarazi du zein den sarearen funtzionamendua eta jakinarazi du Ekonomia Sustapeneko Arloak ikus-entzunezkoen kanpaina jarri duela abian sare sozialetan, Getxoko elikadura-sektoreko jardunbide egokiei eta jasangarritasun-balioei lotuta, negozioek kontzientzia hartu dezaten birziklapenari, kontsumo arduratsuari, janaria alferrik galtzeari eta energia-efizientziari dagokienez. Horrez gain, nabarmendu du zenbait negoziok jardunbide egoki horiek erabiltzen dituztela jada eta proposatu die lehen aipatutako gaien gaineko aholkularitza eskatzeko. Ildo beretik, nabarmendu du aintzat hartzen direla gai horiei lotuta dauden beharrianak eta eskariak, elikadura-sektorekoak ez ezik udalerriko enpresa-parke guztiarena.

Leirek azaldu du ez duela argi Ekonomia Sustapeneko Argiak eskaintzen dituen zerbitzuen zerrenda; gainera, udalak bidaltzen duen komunikazioa oso hizkera teknikoa du edo informazio gehiegi hartzen du barne. Bestalde, Mikel Achaerandiok, Romo Bizirik elkarteko arduradunak, gaineratu du komunikazioa posta elektronikoz egiten dela soilik eta, negozioaren barruan ordu ugari ematen dituztenez, ez direla mezu elektronikoei begira egoten.

[Kanpainari buruzko informazio gehiago](#)

M.Z.-k proposatu du komunikazio-kanal zuzena aztertzea, hala nola Whatsapp, saltokiaren eta udalaren arteko komunikazioa sendotzeko, eta eskatutakoari jarraikiz egokitzea mezuak hurrengo komunikabideetan, hizkera errazagoa eta ulerkorragoa erabiliz.

[Zerbitzuei buruzko informazio gehiago](#)

c) “Txakur-pixa” kanpaina

M.Z.-k azaldu du udaleko Ingurumen Sailak, Ekonomia Sustapeneko Arloarekin lankidetzan, kanpaina bat jarri duela abian merkataritza eta ostalaritzako elkarteekin lankidetzan, maskoten jabeek saltokietako fatxadak zaintzea eta



garbitzea sustatze aldera. Adierazi dute haien ustez egokia dela kanpaina eta establezimendu askok hartuko dutela parte.

M.Z.-k azaldu duenez, maskotak DNA bidez identifikatzeko proiektua dauka udalak, bide publikoan aurkitzen diren txizengatik eta gorozkiengatik zehapenak jarri ahal izateko.

[Informazio gehiago](#)

d) Saldoen merkatua

M.Z.-k azaldu duenez, parte-hartzea mantendu da eta gogorarazi du saldoen merkatuko helburua dela dendako *stocka* amaitzea, baina ez deskontu-kanpaina bihurtzea.

Halaber, proposatu dute izena aldatzea, “Saldoak” hitza ez baita erakargarria. Proposatu dute “Aukeren merkatua” deitzea. Proposamena jasota utzi dute.

[Informazio gehiago](#)

e) GetxoAktibaTU!

M.Z.-k azaldu du zertan datzan programa eta adierazi du helburua dela ikusgarritasuna areagotzea saltokien nahiz getxozarren artean. Gogorarazi da apirilean hasiko dela kanpaina eta jardueraz josita dagoela agenda. Gogorarazi da une horretan ez dela saltzeko tokia izango, jakitera ematekoa baizik. Adostu da telefono bidezko kanpaina egitea.

[Informazio gehiago](#)

f) 2024ko dinamizaziorako laguntzak

M.Z.-k elkarteko ordezkariak bereziki jakinarazi die hiru elkarteek L1 (“Jarduerak”) eta L3 (“Elkartea mantentzeko gastuak”) laguntzak eskatu dituztela. L1 laguntza kide anitzeko organoari bidali zaio jada, ebatzi dezan, eta L3 laguntza asteartean bidaliko zaio kide anitzeko organoari. Ohikoa denez, ebazpena jakinaraziko da eta webgunean argitaratuko da.

[Informazio gehiago.](#)

g) 2024ko kontrataziorako laguntzak Lanbide-ren 2023ko laguntzen deialdiari dagozkionak

M.Z.-k jakinarazi du 2023an emandako dirulaguntzen kopurua: hamasei laguntza eman ziren; horietatik sei (laguntzen herena baino gehiago) izan ziren merkataritzarako, lau ostalaritzarako eta sei zerbitzuen sektorerako.

Juan Jesús Blancok, ekonomi sustapeneko saileko arduradunak, dirulaguntzaren baldintzak zehaztu ditu, eta jakinarazi du Ekonomi Laguntzako Sailak laguntza horiek zabaldu ahal izateko, lehenik eta behin, Lanbidek ebatzi



egin behar duela, eta, amaitzeko, esan du informazioa bidaliko dela, ohi bezala, deialdia argitaratzen denean.

Eskaerak aurkezteko epea itxita dago gaur egun; hala ere, 2024an beste deialdi bat egingo da. Ekonomia Sustapenak gehienez ere maiatzaren 3ra arteko epea du Lanbideren dirulaguntza eskatzeko. Juan Jesús Blancok diru-laguntzaren ezaugarriak adierazi ditu eta jakinarazi du Ekonomia Sustapenak laguntza horiek zabaldu ditzan Lanbidek ebazpena eman behar duela lehenengo; amaitzeko, esan du informazioa bidaliko dela, ohikoa denez, deialdia argitaratzen denean. M.Z.-k, bestalde, gomendatu du ikusten joateko 2023ko laguntzen baldintzak (webgunean argitaratu dira), baldintzak ez baitira asko aldatzen. Bestalde, Juanjek azpimarratu du nahiko arin amaitu ohi direla laguntzak eta, hortaz, garrantzitsua dela eskaera ahalik arinen egitea, eskaerak aurkezten diren hurrenkeraren arabera ematen baitira laguntzak.

[Informazio gehiago.](#)

h) Merkataritza Suspertzeko Plan Estrategikoa (MSPE)

M.Z.-k gogorarazi du negoziatu zela merkataritzaren estrategia zehaztuko duen diagnostikoa egitea/idaztea. Ikertalde kontratuaren enpresa adjudikaziodunak bi dokumentu luze eman dizkio udalari: datu-bilketari buruzkoa bata eta strategiari buruzkoa bestea.

Plan estrategikoa hiru ardatz nagusitan zatitu da:

1. **Enpresa-eraldaketa:** Helburu nagusia da Getxoko merkataritzaren lehiakortasuna hobetzea eta tresnez hornitzea. Baliabide intentsiboak eta banakakoak pertsonalizatzeko moduak ezagutzea eta ekintzaitetza sustatzea. Gai horri dagokionez, halaber, iradoki da zuzenean zabaltzea programak, programa gehiegi baitaude.
2. **Dinamizazioa eta hiriko espazioa eta mugikortasuna:** Mugikortasuna eta irisgarritasuna; jasangarritasuna. Udalerria oinezkoentzat egiten saiatzen ari dira eta bideragarritasun-zerbitzuak ezarri nahi dituzte. Mugitzeko beste modu batzuk barne hartuko dituzten lege-aldaketak ezarriko dira. Ordezkariei eskatu zaie iradokizunak bidali ditzaten zabalduen guneen buruz eta mugikortasunari nahiz irisgarritasunari buruz.

Juan Jesús Blancok, Ekonomia Sustatzeko Saileko arduradunak, nabarmendu du Getxok helmuga adimendun gisa jaso duen zigilu bereizgarria; halaber, adierazi du udala digitalizazio-prozesuan murgilduta dagoela eta etorkizunean hiriari buruzko datu gehiago jasoko dituela denbora errealean.

M.Z.-ren ustez, informazioa biltzeko modu horrek, besteak beste, herritarren udalerrri barruko mugikortasunari buruzko beste ezaugarri



batzuk jasotzen ditu, egunero egiten dituzten ibilbideak eta merkataritza-estrategietarako erabili ahal izateko.

Plan horren bidez proposatu da saltokiaren fatxada ere lantzea eta, oro har, fatxadak ez narriatzeko ekintzak egitea.

3. Udaleko merkataritza-politiken efizientzia:

Plan estrategikoaren baitan, azpimarratu zen lehendik dauden merkataritza-dinamizazio baliabideak erabili behar dituela udalak erakundearen baitan, hala nola Kultura Sailean, sinergiak ezartzeko eta askotariko proposamenak sortzeko. Horrez gain, beste erakunde batzuekin egin beharreko lankidetzak hitzarmenak sustatu behar dira barruan nahiz kanpoan, besteak beste Merkataritza Ganberarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Amaitzeko, M.Z.-k adierazi du lanean ari direla sailaren merkataritza-estrategia Eusko Jaurlaritzarekin bat etorri dadin.

i) GetxoLive

M.Z.-k azaldu du Kultur Arloak GetxoLive zirkuitua (tokiko taldeen musika-jarduera ostalaritza-espazioetan) berreskuratu duela eta merkataritza-lokalak handitu dituela. Laguntzen deialdi bat egingo da, interesa duten saltokiek eskatu dezaten.

4. Ideia eta proposamen berriak.

Itxaso Zelaiak (Carnicería Juan Mari harategia) esan du informazio gehiegi dagoela aholkularitza-programei buruz baina zaila egiten zaiola praktikan jartzea; hala, eskatu du teknikariek hurbiltasun handiagoa eskaini dezaten eta zerbitzu gehiago eman ditzaten. Virginia García (Vito 52) azaldu du negozioaren jabearen erantzukizuna dela sarean eskaintzen dituen produktuak eta ordutegia kudeatzea eta horrek denbora asko dakarrela; hortaz, saltokia itxi ostean alderdi digitala eguneratzeaz arduratu behar dira.

M.Z.-k adierazi du pilotajea egin zela jada eta aztertu zela ostalaritza-sektoreak Google MyBusiness-en duen kokapena, sektore guztiarekin jarri zirela harremanetan eta prestakuntza-tailerrak egitera gonbidatu zituztela (oso gutxi hartu zuten parte).

Ilido beretik, adierazi dute oso altuak direla Getxoko alokairuak eta urtetan ez direla prezioak jaitsi; oso arazo handia da hori saltoki berriak irekitzeko. Aurrekoaren harira, Itxaso Zelaiak (Carnicería Juan Mari harategia) ireki diren negozioen egoerari buruz galdetu du eta jakin nahi du ea “Lonjak Piztu” programan parte hartu zutenek ordaindu zituzten alokairuko prezioak mantendu edo igo ote diren. M.Z.-k erantzun du irekitako hamalau negozioetatik lauk itxi dutela eta abian diren saltokien jarraipena egiten dela oraindik. Negozio horien gaur egungo alokairu-prezioaren datua ematera ere konprometitu da.

Mikel Achaerandiok hausnarketa egin du BizkaiBizi zerbitzuko erabiltzaile berriek egiten duten bizikleten erabilera txarrari buruz eta bideragarritasunari



dagokionez udalerrian egiten ari diren aldaketei buruz. Horrez gain, adierazi du ibai-azpiko ordutegiak eragina izango dutela pertsonen mugikortasunean.

M.Z.-k esan du udalerriko mugikortasun-alderdi guztiak aztertuko direla hiri-mugikortasun jasangarriko planean.

5. Hurrengo urratsak:

- **Enpresen Kontsulta Foroa deitzea maiatzaren 22rako.** Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.

MERKATARITZAREN MAHAIAREN ERABAKIAK (2024-04-08):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako-aktaren zirriborroa bidaltzea	Arloko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Diagnostikoa eta merkataritzako plan estrategikoa bidaltzea	Arloko teknikariak	Bileratik aurrera
3. GetxoLive deialdiko informazioa bidaltzea	Ekonomia Sustapena	Kulturako deialdia onetsi ondoren
4. Getxoko enplegua desagerrarazteari buruzko datuak ematea.	Arloko teknikariak	Bileratik aurrera
5. Kontrataziorako laguntzen deialdiari buruzko informazioa bidaltzea	Ekonomia Sustapena	Ekonomia Sustapeneko deialdia onetsi ondoren